

## Jana Mari Malharin

Mikel ERRAMOUSPE

1992an, laiko talde batek Lapurdi Irratia abiatu ginuen. Proiektua girixtino irrati baten asmatzea eta xutik emaita zen. Holakorik ez zen oraino izan Euskal Herrian. Denak asmatu behar ziren. Egia erran apezak ez ziren sobera holako irrati baten alde. Euskal irratia bazirela jadanik eta hor aski zela lan egitea.

Horiek hola buruilaren lean hasi ginen zerbait gisa goizeko otoltzaren irratian zabaltzen. Aldian aldi parrochia batek prestatzen zuen, grabatzen eta guk muntatu eta zabaltzen ginuen.

Otoltzatik landa egun hartako sailduaren bizia kondatzen ginuen. Eta hor jin zitzautean ideia Jana Mariren ikusterat joaitea. Hunek baietz. Eta baietz dudatu gabe. Jadanik Gure Irratian berri emaita zen eta bazakien oraiko egunean oraiko komunikabide tresnak behar zirela ballatu, beraz harentzat eliza lanetan irrati baten sortzea eta hartan parte hartzean ez zuen dudarik.

Adinean aintzina joana izana gatik ere ez zuen bere buruan trabarik aurkitu. Ondoko egunetan jin nintzaion Maldargirat lehen grabaketan egiterat. Denek badakigu zoin kondalari goxoa zen Jana Mari. Entzulearen atxikitzen bazakien. Irratian erabili behar den doina, erritmoa, hitzak... senditzen zituen.

Haren entzutean, entzuleak bere buruan ikusten, senditzen ahal zuen egun hartako saildua zinez bizi. Bere ikusmoldearen emaita ere bazakien behar zelarik. Eta nola ardura sailduak beren bizian elizarekin traba frango aurkitu dituzten, ez zitzaion batere itsusi horien aipatzea. Bainan sailduaren biziaren kontakizuna beti bahar bezala bururatzen zen. Alabainan, nozbait kanonizatua izan zen ber...

Nik hasteko milesker haundi bat erraiten diot Jana Mariri. Hasta-penak ez dira sekulan errexak eta hasi saila xutik abiatu artean jendeak nahiago du bazterretik so egon einkas ere... Holakorik ez zen Jana Marirekin. Hari irрати horren proiektua ona zitzaion eta bere indar guzuez sustengatzen zuen. Sinesten zuen obra hortan. Haren sustenguak eta ondotik Marie-Jeanne Minaberry bezalako batena aintz estimatu ditut. Milesker beraz.

Bururatzeko proposatzen dautzuegu Jana Mari bera entzutea. Gaur buruillaren 25a baita, egungo sainduaren kronika entzunen dugu berak kondaturik grabaketa huntan.